<table>
<tr><td colspan="2">

**OHIKO OSOKO BILKURA / PLENO ORDINARIO**

**2022KO MAIATZAREN 30A / 30 DE MAYO DE 2022**

</td></tr>
<tr><td colspan="2">BERTARATUAK / ASISTENTES</td></tr>
<tr><td>

**IDAZKARI NAGUSIA / SECRETARIO GENERAL**

D. Juan Agustín Villafranca Bellido jauna

**KONTU-HARTZAILEA / INTERVENTOR**

D. Xabier Andrés Cambronero jauna

</td><td>

**ALKATEA / ALCALDE**

D. Jon Iraola Iriondo jauna PSE-EE (PSOE).

**ALKATEORDEAK / TENIENTES DE ALCALDE**

D. Alberto Albistegui Zamacola jauna PSE-EE (PSOE).<br>Dña. Ana Telleria Echeverria andrea PSE-EE (PSOE).<br>D. Francisco Javier Lejardi Galarraga jauna PSE-EE (PSOE).<br>D. Pedro Escribano Ruiz de la Torre jauna PSE-EE (PSOE).<br>Dña. María Isabel Larrauri Arriaga andrea PSE-EE (PSOE).<br>D. Ander Curiel Ayuso PSE-EE (PSOE).

**ZINEGOTZIAK / CONCEJALES**

Dña. Idoya Sarasqueta Aramburu andrea PSE-EE (PSOE).<br>Dña. Patricia Arrizabalaga Larrañaga andrea PSE-EE (PSOE).<br>D. Josu Mendicute Rodríguez jauna (EIBARKO EAJ-PNV).<br>D. Alberto de la Hoz Gorriti (EIBARKO EAJ-PNV).<br>Dña. Mª Mercedes Garate Larrañaga andrea (EIBARKO EAJ-PNV).<br>D. Jon Pérez Illana jauna (EIBARKO EAJ-PNV).<br>Dña. Amaia Albizu Llubia andrea (EIBARKO EAJ-PNV).<br>D. Gorka Errasti Bernedo jauna (EH BILDU).<br>Dña. Igone Lamarain Cobo andrea (EH BILDU).<br>Dña. Miren Baranguan Yarza andrea (EH BILDU).<br>D. José Ángel Gimare Escolar jauna (EH BILDU).<br>Dña. Ana Francisca Astigarraga Arrizabalaga andrea (EH BILDU).<br>Dña. Mª Isabel Fernández Pejenaute andrea (ELKARREKIN EIBAR-PODEMOS / EZKER ANITZA – IU/ EQUO BERDEAK).

</td></tr>
</table>

**Akta hau osoko bilkuraren grabazioarekin osatzen da. URL honen bidez eskura daiteke grabazioa:**

**La presente Acta se completa con la grabación del Pleno a la que se puede acceder a través de la siguiente URL:**

http://eibar.videoacta.es?pleno=20220530&instante=1

Eibarko udaletxearen Batzar Aretoan, 2022ko maiatzaren 30ean, arratsaldeko zazpiak izanik, Udalbatza bildu zen ohiko bilkuran, goian aipaturiko jaun-andreek osatua; Ibañez Anuncibay andrea bere ezin etorria justifikatu dute.

En el Salón de Plenos de la Casa Consistorial, a las diecinueve horas del día 30 de mayo de 2022, se reunió en sesión ordinaria el Pleno Municipal, formado por las señoras y señores anteriormente mencionados/as; habiendo justificado su ausencia Ibañez Anuncibay eta Lamarain Cobo andreek eta Pérez Illana jaunak beren ezin etorria justifikatu dute.

**Alkatea-Udalburu jaunak** bilerari hasiera eman dio eta aztertu da honako

El **Sr. Alcalde-Presidente** declara abierta la sesión y se procede a tratar el siguiente

**GAI-ZERRENDA**

**ORDEN DEL DÍA**

**1. Udalbatzak 2022ko apirilaren 25ean eta maiatzaren 3an egindako bilkurei dagozkien akta-zirriborroak onartzea.**

BOZKETAREN EMAITZA: ONARTUA.
ALDEKO BOTOAK: 14 - PSE-EE (PSOE) (9), Eibarko EAJ-PNV (5).
KONTRAKO BOTOAK: (0).
ABSTENTZIOAK: 6 - EH Bildu (5), Elkarrekin Eibar-Podemos (1).

**1. Aprobación de los borradores de actas correspondientes al 25 de abril y 3 de mayo de 2022.**

RESULTADO DE LA VOTACIÓN: APROBADA.
VOTOS A FAVOR: 14 - PSE-EE (PSOE) (9), Eibarko EAJ-PNV (5).
VOTOS EN CONTRA: (0).
ABSTENCIONES: 6 - EH Bildu (5), Elkarrekin Eibar-Podemos (1).

**2. Alkatetzak emandako ebazpenen kontu-ematea.**

Udalkideak jakinaren gainean geratu dira.

**2. Dación de cuentas de Resoluciones de Alcaldía.**

Los miembros de la Corporación se dan por enterados.

**3. Eibarko Udalaren atxikimendua: Tokiko ekintza jasangarria eta Tokiko 2030 Agenda Euskadin bultzatzeko akordioa. UDALSAREA 2030 udalerri jasangarrien euskal sarea berritzea.**

BOZKETAREN EMAITZA: ONARTUA.
ALDEKO BOTOAK: 20 - PSE-EE (PSOE) (9), Eibarko EAJ-PNV (5), EH Bildu (5), Elkarrekin Eibar-Podemos (1).

KONTRAKO BOTOAK: (0).

ABSTENTZIOAK: (0).

"Tokiko ekintza jasangarria eta Tokiko 2030 Agenda Euskadin bultzatzeko akordioa. Udalsarea 2030 udalerri jasangarrien euskal sarea berritzea" akordio-proposamenaren berri eman da, Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen, Iraunkortasun eta Ingurumen Sailak bidalitakoa.

Ikusirik 2022ko maiatzaren 6ko Ingurumen Batzorde Aholkulariaren proposamena.

**3. Adhesión al acuerdo para el impulso de la acción local sostenible y la Agenda 2030 local de Euskadi. Renovación de "UDALSAREA 2030, Red Vasca de municipios sostenibles".**

RESULTADO DE LA VOTACIÓN: APROBADO.
VOTOS A FAVOR: 20 - PSE-EE (PSOE) (9), Eibarko EAJ-PNV (5), EH Bildu (5), Elkarrekin Eibar-Podemos (1).

VOTOS EN CONTRA: (0).

ABSTENCIONES: (0).

Se da cuenta de la propuesta de Acuerdo para el impulso de la "Acción Local Sostenible y la Agenda 2030 Local en Euskadi. Renovación de Udalsarea 2030, Red Vasca de Municipios Sostenibles" remitida por el Departamento de Desarrollo Económico, Sostenibilidad y Medio Ambiente del Gobierno Vasco.

Vista la propuesta de la Comisión Asesora de medio Ambiente de 6 de mayo de 2022.

Ikusirik Idazkaritzaren 2022ko maiatzaren 18ko txostena,

Visto el informe de Secretaría de 18 de mayo de 2022.

Ondorioz, kontuan hartuta 2022ko maiatzaren 23ko Erakunde, Lege eta Lurralde Gaietako Lan Batzordeak aldeko irizpena eman zuela,

En consecuencia, considerando el dictamen favorable de la Comisión de Trabajo de Asuntos Institucionales, Jurídicos y Territoriales de 23 de mayo de 2022.

Osoko Bilkurak honako erabaki hau hartu du:

El Pleno de la Corporación, adopta el siguiente:

**ERABAKIA**

**ACUERDO**

**AURRENA.-** Eibarko Udalak bere atxikimendua erakusten dio honako agiri honi: "Tokiko ekintza jasangarria eta Tokiko 2030 Agenda Euskadin bultzatzeko akordioa. UDALSAREA 2030 udalerri jasangarrien euskal sarea berritzea".

**PRIMERO.-** Aprobar la adhesión del Ayuntamiento de Eibar al "Acuerdo para el impulso de la acción local sostenible y la Agenda Local 2030 en Euskadi. Renovación de la Red Vasca de Municipios sostenibles, Udalsarea 2030".

**BIGARRENA**.- Udalez gaindiko erakunde horretako kide gisa atxikitzearen ondoriozko konpromiso guztiak bere gain hartzea.

**SEGUNDO.-** Asumir la totalidad de los compromisos derivados de la adhesión como miembro de la citada organización supramunicipal.

**HIRUGARRENA.-** UDALSAREA 2030 Udalerri Jasangarrien Euskal Sarerako Eibarko Udalaren ordezkari honako hauek izendatzea:

- Maila politikoan:

**TERCERO.-** Designar como representante del Ayuntamiento de Eibar en la Red Vasca de Municipios sostenibles, UDALSAREA 2030 a las siguientes personas:

- A nivel político:

Titularra: Alberto Albistegui Zamacola, lehen alkateordea.

Ordezkoa: Jon Iraola Iriondo, alkate-udalburua.

- Maila teknikoan:

Vanesa Larrabide García, Ingurumeneko teknikaria.

**LAUGARRENA.-** Alkate-Udalburuari ahalmena ematea erabaki hau gauzatzeko behar diren agiriak sinatzeko.

**4. Dirulaguntzen plan estrategikoaren eranskina eta dirulaguntza izendunen eranskina aldatzeko proposamena. (Ongi Etorri Berbetanera)**

BOZKETAREN EMAITZA: ONARTUA.

ALDEKO BOTOAK: 20 - PSE-EE (PSOE) (9), Eibarko EAJ-PNV (5), EH Bildu (5), Elkarrekin Eibar-Podemos (1).

KONTRAKO BOTOAK: (0).

ABSTENTZIOAK: (0).

Ikusita Alkatetzak egindako proposamena, 2022. urterako onetsitako Dirulaguntzen Plan Estrategikoaren Eranskina eta dirulaguntza izendunen Eranskina aldatzeko.

Titular: D.Alberto Albistegui Zamacola, Primer Teniente Alcalde.

Suplente: D. Jon Iraola Iriondo, Alcalde-Presidente.

- A nivel técnico:

Dña. Vanesa Larrabide García, Técnica de Medio Ambiente.

**CUARTO.-** Facultar a la Alcaldía-Presidencia para la firma de los documentos necesarios para ejecutar el presente acuerdo.

**4. Propuesta de modificación del anexo del plan estratégico de subvenciones y de modificación del anexo de subvenciones nominativas. (Ongi etorri berbetanera).**

RESULTADO DE LA VOTACIÓN: APROBADO.

VOTOS A FAVOR: 20 - PSE-EE (PSOE) (9), Eibarko EAJ-PNV (5), EH Bildu (5), Elkarrekin Eibar-Podemos (1).

VOTOS EN CONTRA: (0).

ABSTENCIONES: (0).

Vistas la propuesta de Alcaldía para modificación del Anexo del Plan Estratégico de Subvenciones y la modificación del Anexo de Subvenciones Nominativas, aprobados para el año 2022.

Horren ondorioz, eta kontuan hartuta 2022ko maiatzaren 23ko Kontu, Ogasun eta Ondare Lan Batzordeak aldeko irizpena eman zuela,

En consecuencia, considerando el dictamen favorable de la Comisión de Trabajo de Cuentas, Hacienda y Patrimonio de 23 de mayo de 2022.

Osoko bilkurak honako erabaki hau hartu du:

El Pleno de la Corporación, adopta el siguiente:

**ERABAKIA**

**ACUERDO**

**AURRENA.-** Eibarko Udalaren Dirulaguntzen Plan Estrategikoaren Eranskina aldatzea eta indarrean dagoen Aurrekontuaren Dirulaguntza izendunen eranskina aldatzea.

**PRIMERO.-** Modificar el Anexo del Plan Estratégico de Subvenciones del Ayuntamiento de Eibar y modificar el anexo de subvenciones nominativas del Presupuesto en vigor para recoger la modificación planteada.

Dirulaguntza lerro honi alta ematea:

Dar de alta la siguiente línea de subvención:

DIRULAGUNTZA LERROA: “Ongi Etorri Berbetanera” egitasmoa burutzea.

LINEA DE SUBVENCIÓN: Llevar a cabo el proyecto “Ongi Etorri berbetanera”

ONURADUNA: …ETA KITTO! EUSKARA ELKARTEA

HELBURUA: Egitasmoa bideragarri egiten laguntzea. Inmigranteak euskarara eta euskal kulturara gerturatzea elkarbizitza.

URTEKO KOSTUA: 29.050 euro

FUNTZIONALA: 335.10

BENEFICIARIO: …ETA KITTO! EUSKARA ELKARTEA

OBJETO: Contribuir a la viabilidad del proyecto. Acercar la convivencia de los inmigrantes al euskera y a la cultura vasca.

COSTE ANUAL: 29.050 euros

FUNCIONAL: 335.10

DIRULAGUNTZA EMATEKO PROZEDURA: dirulaguntza izenduna.

PROCEDIMIENTO DE LA CONCESIÓN: Tipo subvención nominativa.

**BIGARRENA.-** Espediente hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eman behar da argitara, jendaurrean jartzeko.

**SEGUNDO.-** Asimismo, el presente expediente deberá publicarse en el Boletín Oficial de Gipuzkoa para su información pública.

**5. Dirulaguntzen plan estrategikoa eta dirulaguntza izendunen eranskina aldatzeko proposamena. (Eta Kitto astekaria).**

**5. Propuesta de modificación del anexo del plan estratégico de subvenciones y de modificación del anexo de subvenciones nominativas. (Eta Kitto astekaria).**

BOZKETAREN EMAITZA: ONARTUA.
ALDEKO BOTOAK: 20 - PSE-EE (PSOE) (9), Eibarko EAJ-PNV (5), EH Bildu (5), Elkarrekin Eibar-Podemos (1).

KONTRAKO BOTOAK: (0).

ABSTENTZIOAK: (0).

RESULTADO DE LA VOTACIÓN: APROBADO.
VOTOS A FAVOR: 20 - PSE-EE (PSOE) (9), Eibarko EAJ-PNV (5), EH Bildu (5), Elkarrekin Eibar-Podemos (1).

VOTOS EN CONTRA: (0).

ABSTENCIONES: (0).

Ikusita Alkatetzak egindako proposamena, 2022. urterako onetsitako Dirulaguntzen Plan Estrategikoaren Eranskina eta dirulaguntza izendunen Eranskina aldatzeko.

Vistas la propuesta de Alcaldía para modificación del Anexo del Plan Estratégico de Subvenciones y la modificación del Anexo de Subvenciones Nominativas, aprobados para el año 2022.

Horren ondorioz, eta kontuan hartuta 2022ko maiatzaren 23ko Kontu, Ogasun eta Ondare Lan Batzordeak aldeko irizpena eman zuela,

En consecuencia, considerando el dictamen favorable de la Comisión de Trabajo de Cuentas, Hacienda y Patrimonio de 23 de mayo de 2022.

Osoko Bilkurak honako erabaki hau hartu du:

El Pleno de la Corporación, adopta el siguiente:

**ERABAKIA**

**ACUERDO**

**AURRENA.-** Dirulaguntza-lerro honen zenbatekoa aldatzea:

**PRIMERO.-** Modificar el importe de la siguiente línea de subvención:

| **60.041 € izatetik 100.041 € izatera igarotzen da** | **Pasa de 60.041 € a 100.041 €** |
|---|---|

| | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|
| HELBURUA: Eta Kitto! Astekaria argitaratzea. | - Eta Kitto astekaria argitaratzen laguntzea. Euskararen sustapena. Euskarazko irakurketa sustatzea. | 100.041€ | 335.10 | Finantzaketa Udalaren beraren funtsekin egingo da, Aurrekontuaren IV. kapituluaren kargura. | Dirulaguntza mota: izenduna |
| OBJETO: Publicar el semanal…Eta Kitto! | - Ayudar en la publicación del semanal…Eta Kitto! Fomento del euskera. Fomentar la lectura en euskera. | 100.041€ | 335.10 | La financiación se llevará a cabo con fondos propios, con cargo al capítulo IV del presupuesto | Tipo de subvención: nominativa |

**BIGARRENA.-** Espediente hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eman behar da argitara, jendaurrean jartzeko.

**SEGUNDO.-** Asimismo el presente expediente, deberá publicarse en el Boletín Oficial de Gipuzkoa para su información pública.

**6. Dirulaguntzen plan estrategikoa eta dirulaguntza izendunen eranskina aldatzeko proposamena. (Armagiñak *Asociación de armeros, grabadores y damasquinadores de Eibar*).**

**6. Propuesta de modificación del anexo del plan estratégico de subvenciones y de modificación del anexo de subvenciones nominativas. (*Armaginak* Asociación de armeros, grabadores y**

damasquinadores de Eibar).

BOZKETAREN EMAITZA: ONARTUA.
ALDEKO BOTOAK: 20 - PSE-EE (PSOE) (9), Eibarko EAJ-PNV (5), EH Bildu (5), Elkarrekin Eibar-Podemos (1).

KONTRAKO BOTOAK: (0).

ABSTENTZIOAK: (0).

RESULTADO DE LA VOTACIÓN: APROBADO.
VOTOS A FAVOR: 20 - PSE-EE (PSOE) (9), Eibarko EAJ-PNV (5), EH Bildu (5), Elkarrekin Eibar-Podemos (1).

VOTOS EN CONTRA: (0).

ABSTENCIONES: (0).

Ikusita Alkatetzak egindako proposamena, 2022. urterako onetsitako Dirulaguntzen Plan Estrategikoaren Eranskina eta dirulaguntza izendunen Eranskina aldatzeko.

Vistas la propuesta de Alcaldía para modificación del Anexo del Plan Estratégico de Subvenciones y la modificación del Anexo de Subvenciones Nominativas, aprobados para el año 2022.

Horren ondorioz, eta kontuan hartuta 2022ko maiatzaren 23ko Kontu, Ogasun eta Ondare Lan Batzordeak aldeko irizpena eman zuela,

En consecuencia, considerando el dictamen favorable de la Comisión de Trabajo de Cuentas, Hacienda y Patrimonio de 23 de mayo de 2022.

Osoko Bilkurak honako erabaki hau hartu du:

El Pleno de la Corporación, adopta el siguiente:

**ERABAKIA**

**ACUERDO**

**LEHENENGOA.-** Aurrekontuko 2. Kapitulutik 4. Kapitulura aldatzea 1.1100.227.04.336.10 “kontratu sozio-kulturala” partida, 18.000 eurokoa.

**PRIMERO.-** Modificar la partida 1.1100.227.04.336.10 “contratos socioculturales” de 18.000 € del capítulo 2 al capítulo 4 del Presupuesto.

**BIGARRENA.-** Eibarko Udalaren Dirulaguntzen Plan Estrategikoaren

**SEGUNDO.-** Modificar el Anexo del Plan Estratégico de Subvenciones del

Eranskina aldatzea eta indarrean dagoen Aurrekontuaren Dirulaguntza izendunen eranskina aldatzea.

Ayuntamiento de Eibar y modificar el anexo de subvenciones nominativas del Presupuesto en vigor para recoger la modificación planteada.

Dirulaguntza lerro honi alta ematea:

Dar de alta la siguiente línea de subvención:

DIRULAGUNTZA LERROA: Grabatugintza eta damaskinatugintza ikastaroa.

ONURADUNA: Asociación de Armeros, Grabadores y Damasquinadores de Eibar.

HELBURUA: Lanbide tradizionalak gordetzea eta belaunaldi berriei ezagutza eta lanbidea transmititzea.

URTEKO KOSTUA: 18.000 euro

FUNTZIONALA: 336.10
DIRULAGUNTZA EMATEKO PROZEDURA: dirulaguntza izenduna.

LINEA DE SUBVENCIÓN: Curso de iniciación al grabado y damasquinado.

BENEFICIARIO: Asociación de Armeros, Grabadores y Damasquinadores de Eibar.

OBJETO: Preservar oficios tradicionales y transmitir conocimiento y oficio a las nuevas generaciones.

COSTE ANUAL: 18.000 euros

FUNCIONAL: 336.10
PROCEDIMIENTO DE LA CONCESIÓN: Tipo subvención nominativa

**HIRUGARRENA.-** Espediente hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eman behar da argitara, jendaurrean jartzeko.

**TERCERO.-** Asimismo el presente expediente, deberá publicarse en el Boletín Oficial de Gipuzkoa para su información pública.

**7. Galderak eta erreguak.**

**7. Ruegos y Preguntas.**

Eta, eztabaidatzeko beste gairik ez dagoela, eta arratsaldeko zortziak eta hogei izanik, Alkate-Udalburu jaunak amaiera eman dio

Y no habiendo más asuntos que tratar, y siendo las veinte horas veinte minutos, el Sr. Alcalde-Presidente levanta la sesión, de

Osoko Bilkurari, nik, Idazkari Orokorrak, horri guztiari fede emanez.

todo lo cual yo, el Secretario General, doy fe.

O.I. / Vº Bº

ALKATE UDALBURUA/

EL ALCALDE-PRESIDENTE,

IDAZKARIA/ EL SECRETARIO

Jon Iraola Iriondo

Juan Agustín Villafranca Bellido